

5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Salmenta zuzena edo zeharkako salmenta izango dugu, hau da, gure arropa, dendan erosteko aukera izango dute bezeroek. Gainera, online bidez ere erosi ahal izango dituzte produktuak, bezero horiek gehiago erakartzeko helburuarekin eta mezua arinago heltzeko publizitatea erabiliko dugu, sare sozialetan. Batez ere, Instagram shop orrialdea erabiliko dugu gazteei gure enpresari buruz informazioa emateko era errazena iruditzen zaigulako, hortik gurekin kontaktuan jarri ahal dira eta segituan arropa erosi dezakete.

Online erosketetarako, Correos zerbitzu publikoa erabiliko dugu. Astero egun baten joango gara paketeak bidaltzera eta bidalketa horretan asteko eskari guztiak bidaliko ditugu.

30€ edo gehiago gastatzen badituzte erosketan, bidalketa dohain izango da, bestela 3€ ordaindu beharko dute.

